

DESAGERTUTAKO
DONOSTIA



Berta Echeberria Arquero

DESAGERTUTAKO DONOSTIA

ARNAU IZARD LLONCH / AFCEC

 **efadós**

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

DESAGERTUTAKO DONOSTIA

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma

Lehen edizioa: 2025eko azaroa

Testuen ©: Berta Echeberria Arquero

Hitzaurrearen ©: Félix Luengo Teixidor

Argazkien ©: Kutxa Fundazioa Fototeka
www.kutxateka.eus

Euskarazko itzulpenaren ©: Ibai Sarasua Garcia

Bildumaren ©: Efadós argitaletxea

Edizioaren ©: Efadós argitaletxea eta Kutxa Fundazioa

EFADÓS ARGITALETXEA

Edison kalea, 3 · A pabiloia
Les Torrenteres industriagunea
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonia: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

KUTXA FUNDAZIOA

Mikeletegi pasealekua, 81
20009 Donostia (Gipuzkoa)
Telefonia: 943 25 19 00
info@kutxafundazioa.eus
www.kutxafundazioa.eus

Jatorrizko ideia eta diseinua:

Efadós argitaletxea

Azaleko argazkia:

Martín Ricardo / Kutxa Fundazioa Fototeka
Photo Carte funtsa

ISBN 979-13-87658-40-3

Lege-gordailua: B-19434-2025

Obra hau edozein eratan erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko edo eraldatzeko, haren titularren baimena behar da nahitaez, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jo ezazu CEDROra (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. or.

HITZAURREA

Donostia ezagutzen

8. or.

SARRERA

Donostia berrikusten

13. or.

IBILI

Osteratxo bat behinolako hirian barrena

57. or.

OROITU

Hiriko biztanleen omenez

125. or.

BERRIZ BIZI

Bizitakoa berriz bizi eta gogoratu

184. or.

AURKIBIDE ALFABETIKOA

Hitzaurrea

DONOSTIA EZAGUTZEN

Félix Luengo Teixidor, donostiar historialaria

Hiri fotogenikoa da Donostia. Eta sarri fotografiatua. Eta ez dut esan nahi gaur egun, gure garaian, telefono mugikorrren kameraren erraztasunak paisaiak etengabe milaka argazkiz josteko aukera ematen digun honetan, baizik eta duela 150 urte baino gehiagotik.

xix. mende erdialdetik eta hamarkada askoz, Espainian udaldia emateko lekuri garrantzitsuena izan zen. Udan errege-erreginak, gortea eta gizartearen goi-mailako ki-deak etortzen ziren, baita haiekin batera ospakizunak, jaiak eta bizitza soziala ere... Horrek, hiriaren eta haren inguruaren edertasun ezagunarekin batera, argazkiak

ugaritzea ekarri zuen, eta hirian aski goiz argazkilari eta argazki-etxe bikainak agertu izana ere bai. Horrexegatik, hain zuzen, argazki-artxibo handia daukagu eskura egun, eta horri esker erakusketa ugari egin ahal izan dira eta argitalpen asko plazaratu dira prentsan, liburuetan, albume-tan eta katalogoetan, hiriko antigoaleko argazkiekin.

Orain, horiei guztiei liburu berri hau gehitu behar zaie, berezi egiten duten bitxikeria zenbait dituen. Hasteko, autore-liburu bat da: Berta Echeberria da haren egilea, hiriaren historia sakon ikertu eta ondotxo ezagutzen duen historialaria, batez ere 1864an harresiak eraitsi zirenetik 1936ko Gerra Zibilera arteko mende eskas horretakoa, zeina, bide batez, gakoa izan baitzen hiriaren eta haren gizartearen eredu diseinatzeko. Hiriaren

historia ederki ezagutzen duenez, urte haietako argazki-sorta erakargarria bildu ahal izan du, eta sakon hausnartutako eta ondo diseinatutako eske-ma batekin aurkeztu digu hiriaren aurpegirik eza-guna baino zerbait gehiago, hau da, hondartzaren, turismoaren, luxuaren, eraikin dotoreen eta abarren irudia baino are gehiago. Argazki ezezagunagoen bidez, sasoi hartako Donostiaren irudi grafiko osatua eskaini digu: industriarena, ofizioena, aisiarena, zer-bitzuena, eguneroko bizitzarena... Hain ezagunak ez diren irudiekin batera testu labur batzuk daude, argazki-oin modura, idazkera arin eta erakargarrian jasoak, irudi bakoitza bere testuinguruan kokatzeko eta argazkiak hobeto balioesteko.

Horren guztiaren emaitza da Donostia ezezagunaren historia grafiko paregabe bat, hiriaren eta haren iraganaren irudi ondo osatua eta erakargarria izatea ahalbidetzen diguna.



Sarrera


DONOSTIA BERRIKUSTEN

Berta Echeberria, historialaria

Hiriak, beren horretan, oroitzapenen ar-txibo paregabeak dira, haietan bat egiten baitute bertan bizi izan zirenen iraganak, haiek gogora dakartzatenen orainak eta bertan biziko direnen etorkizunak. Nolanahi ere, ezinbestekoa da hiriak (berr)ikustea. Gertatu zena eta gertatutako hartan parte hartu zutenak ezagutzea eta aintzatestea. Zeregin horretan, benetan lagungarriak zaizkigu argazkiak. Istantak harrapatzen dituzte, aspaldiko garaietara hurbiltzen gaituzte eta iraganera bidaiatzeko aukera ematen digute. Eta horixe da gure asmoa hemen: desagertu zen arren oraindik irauten duen Donostiara hur-

biltzea. Hain zuzen, hemen kontatuko dugun garaian ondo errotuta dago egungo Donostiaren zati handi bat. Hirurogeita hamabost urte dira, harresia 1864an eraitsi zenetik Gerra Zibila 1939an amaitu zen arte, mende eskas, Donostia modernoari itxura eman ziona. Urte haietan heldu zion elitearentzat pentsatutako bainuetxe-hiriaren eredu berriari, eta hiria birformulatu eta gizartea eta ekonomia berritu zituen horretarako. Hala eta guztiz ere, prozesu linealik ez dagoenez eta asmo orotarako erreparoak daudenez, Easo Ederraren planteamenduen aurkako elementurik ere izan zen, hau da, proiektatu nahi zen irudiarekin aurrez aurre talka egiten zuten disonantziak, desagerraraztea lortu ez zuten arren, ezkutatzen saiatu zirenak. Ez dago, baina, agerian gelditzen ez

EGILE EZEZAGUNA / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - RAFAEL MUNOZ BILDUMA



HIRIA ZERUTIK

7. orrialdeko aitona eta hauraren irudiak liburu honek lortu nahi duen transmisio-ariketa irudikatzen du. Aurreko orrialdean, Elie Hanouille hegazkinlari aitondaria Donostiako badian ageri da hegan, aireplano batean, 1914ko martxoko Abazioaren Astean istripuz hil baino bi egun lehenago.

GINAK LURREAN

Sarri askotan, ospakizunak eta aldarrikapen politikoak nahastu egiten ziren. 20ko hamarkadatik aurrera emakumeek afera publikoetan zuten presentzia handitu egin zen, baita haien eskubideen aldeko borroka ere. Irudian, emakume gazte talde bat feminismoaren alde ageri da (mozorrotuta?), 1931ko inauterietan.



RICARDO MARTÍN / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - PHOTO CARTE FUNITSA

den sekreturik, ezta betiko gaitzik ere. Horrexegatik erabaki dugu Donostia oso-osorik irudikatzen duen kontakizuna egitea. Hiri idealaren irudia (partez bakarrik hezurmamitu zena) hainbesteko osperik hartu ez duten beste batzuekin osatu dugu: haren hobe beharrez jo eta ke aritzen zirena. Garai berriak nola zihoazen eta zer sentimendu zekartzaten irudikatu nahi izan dugu, baita gizartea nola esnatu zen eta gizon-emakumeek esfera publikoan nola parte hartu zuten ere. Halaber, ahaztuta gelditu ziren (edo ahaztutako zituzten) zenbait kontu ere bildu ditugu; izan ere, ñabardurak ez dira garrantzitsuak soilik, baizik eta beharrezkoak.

Hona hemen Donostiaren iragan hurbila bahetuta (berr)ikusteko aukera, han suertatutako kontrasteak nabarmenduta. Honako hau eskaintzeko, Kutxa Fundazioa Fototeka (Ane Abalde, Pilar de la Sernaren, Niko Itu-

rralderen eta Juantxo Egañaren laguntzaz) gure eskura utzi duen argazki-artxibo oparo eta zabala erabili dugu. Uneak, pertsonak eta lekuak dira, Rogelio Gordónek, Cesáreo Castilla Moledak, Pascual Marínnek eta Ricardo Martínek argazkietan jasoak, gaurkoan bildu ditugunak behinolako Donostia begirada berri batekin ikusteko: neurearekin. Egongo da eraikin hau edo bestea falta dela deritzonik, edo zerbaiten edo norbaiten falta sumatu eta hautatutako paisaiekin eta pasadizoekin harritu denik. Horren zergatia aukera(keta) pertsonal bat da, esku artean duzunaren mailako lan bat egiteko behar den zorroztasuna alde batera utzi gabe ere, orrialde hauei behatuko dien oro Donostiako iragana (berriz) bisitatzera gonbidatuko duena, bidaia bat egitera, honezkero partez desagertu den arren gogora ekarri beharra dugun Donostia oroitzeko eta hura biziberritzeko.



RICARDO MARTÍN / KUTXA FUNDazioA FOTOTEKA - PHOTO CARTE FUNTSA

IBILI

Osteratxo bat behinolako hirian barrena

Bidea oinez erakusten omen da, eta lehen kapitulu honetan, bidaiaren lehen geldialdian, bidelagun izango gaituzue 1864an harresia eraitsi ostean Donostiak izandako bilakaeran barrena. Boulevardetik hasi, eta Parte Zaharrera sartuko gara. Kasino Handiaren eraikinean eta Alderdi Ederreko lorategietan gelditu ondoren, Kortazar zabalgunean eta hegoaldeko haren luzapenean barrenduko gara, harik eta artean lehortu gabe zeuden Amarako paduretara heldu arte, Morlanseko portua eta akueduktua oraindik ere zutik ikusteko. Loiolara heldutakoan Urumea zeharkatuko dugu, Egiako Norteko Geltokitik igaroko gara, Gros auzo heterogeneora heldu arte. Hondartzari behatuko diogu han, eta haren bi ertzetan, bi bizimodu eta bi hiri-eredu kontrajarri ikusiko ditugu: batean, Sagues inguruko *Hurdes donostiarra*; bestean, Kursaaaleko luxua eta sofistikazioa. Azken horren pareko zubian gurutzatuko dugu, zuzen jarraitu, eta badiarekin egingo dugu topo. Kontxa amaieran, Antiguara eta Ondarretara garamatzen tunela zeharkatuko dugu, eta handik Igeldora igoko gara, (behinolako) hiria behean utzita.



EGILE EZEZAGUNA / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - RAFAEL MUNOIA BILDUMA

TTUN-TTUN! ZABALDU HARRESIA

1863an, errege-agindu batek xedatu zuen hiriak gotorleku izateari uztea eta haren harresia eraistea. Lanak atzeratu egin ziren, ordea, lursailen jabetzari eta lanetarako diruari buruzko auziak eta negoziatioak tarteko. 1864ko irudi honetan harresia erdi eraitsita ageri da.

ETA ORAIN, ZER?

Zabalgunea sortzeak eraiki beharreko hiriaren ereduari buruzko eztabaida handia ekarri zuen. Zumardizaleen eta aurkakoen arteko eztabaida sutsuetan, lehenengoek irabazi zuten, turismoari nabarmen emandako zerbitzu-hiri bat eraikitzearen alde egin zutenek.

EGILE EZEZAGUNA / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - RAFAEL MUNOIA BILDUMA

